

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4992

EBAZPENA, 2021eko irailaren 16koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bidez Justizia Administrazioako zuzendariari, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren zuzendariari eta espetxeen zuzendariari eskuordetzen baitzaizkie zenbait gairi buruzko eskumenak, espetxe-arloan Estatuko legeria betearazteko.

Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren 79. artikulua xedatzen duenez, autonomia-erkidegoei dagokie lege horretan arautzen diren erakundeak zuzendu, antolatu eta ikuskatzea, baldin eta estatutuen bidez beren gain hartu badute espetxe-legeak betearaztea eta, ondorioz, espetxe-jarduera kudeatzea.

Ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak, espetxe-arloko Estatuaren legeria betearazteari buruzko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoak, E) apartatuan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio eskualdatutako zerbitzuei dagozkien ondasun, eskubide eta betebeharrak, eta, F) apartatuan ezartzen duenez, eskualdatutako eginkizunei eta zerbitzuei atxikitako langileak eta lanpostu hutsak Euskal Autonomia Erkidegoaren mende egongo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko gainerako arauetan legez aurreikusitako moduan, eta langileen espedienteetan zehazten diren inguruabar berberetan.

Bestalde, urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, xedatzen du Zerbitzu Zuzendaritzari dagokiola: langileen prestakuntza- eta hobekuntza-planak lantzea, Justizia Administrazioako langileena salbu, eta hargatik eragotzi gabe Funtzio Publikoko Zuzendaritzari eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkien eskumenak; Sailari atxikitako giza baliabideak planifikatzea eta kudeatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikulua eta indarreko gainerako araudiak Sailari esleitzen dizkieten eskumenak Zerbitzuen zuzendariak egikaritura; eta Sailak langile-beharrizanei buruz egiten dituen aurreikuspenak ebaluatzea, eta proposamenak egitea plantilla eratzeko eta lanpostu-zerrendak egiteko, Justizia Administrazioako langileei buruzkoak salbu.

Era berean, Saileko bulegoen barne-erregimena zaindu eta babestea, bai eta Sailari atxikitako ondarea eta haren ekipamendua administratzea eta kontserbatzea ere; kontratazio-espedienteak eta baliabide propioei eta zerbitzu teknikoiei egindako enkarguak izapidetzea, eta Sailaren kontratazio-organo gisa jardutea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua –sektore publikoko kontratazioa arautzeko araudian ezarritakoaren arabera– 1.000.000 eurora artekoa denean.

Azkenik, Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumena da, baita ere, Sailaren kudeaketa ekonomikoa egitea eta aurrekontua betearazteko faseak izapidetzea. Horrela, Zerbitzuen zuzendariak Sailaren 1.000.000 eurora arteko gastuak baimenduko ditu.

Hala eta guztiz ere, eta kontuan hartuta Zerbitzu Zuzendaritza honek duen lan-karga eta laster egitura-dekretua ere zentzu horretan aldatuko dela, une honetan komenigarritzat jotzen da ebazpen honen xedapen-zatian zerrendatzen diren eginkizunak eskuordetzea.

Azaldutakoa dela bide, eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako eginkizun hauek eskuordetzea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Administrazioari, ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuei atxikitako langile eta lanpostu hutsei dagokienez –474/2021 Errege Dekretua, espetxe-arloko Estatuaren legeria betearazteari buruzko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa–:

1) Langileen prestakuntza- eta hobekuntza-planak lantzea, hargatik eragotzi gabe Funtzio Publikoko Zuzendaritzari eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkien eskumenak, eta Sailari atxikitako giza baliabideak planifikatzea eta kudeatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikulua eta indarreko gainerako araudiak Sailari esleitzen dizkioten eskumenak egikarituta.

2) Sailak langileen premiei buruz egindako aurreikuspenak ebaluatzea, eta sailean lanpostuen plantillak eta zerrendak osatzeko proposamenak egitea.

Bigarrena.– Honako eginkizun hau eskuordetzea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Digitalaren eta Azpiegituren zuzendaritari:

Saileko bulegoen barne-erregimena zaindu eta babestea, bai eta Sailari atxikitako ondarea eta haren ekipamendua administratzea eta kontserbatzea ere, espetxe-arloko Estatuaren legeria betearazteari buruzko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak eskualdatzen dituen ondarea, eskubide eta betebeharreri dagokienez.

Hirugarrena.– Espetxeetako zuzendariari eskuordetzea –bakoitzari bere zentroaren esparruan– honako eginkizun hauek:

a) Bere esparruan beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak onartzea, indarrean dagoen funts aurreratuen araubidearen eremuan.

b) Indarrean dagoen legerian txikitat tipifikatutako kontratuen kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, hargatik eragotzi gabe organo eskuordetza-emaileak gastua onartzea, betiere funtzionamendurako beharrezkoak badira eta kudeaketa zentralizatukoak edo beste organo batzuen eskumenekoak ez diren funtzionamendu-gastuei badagozkie, eta obrek ez badute behar fakultatibo eskudunak egindako proiektu teknikorik.

c) Urteko oporrak eta jaiegunak konpentsatzeko egunak ematea eta banatzea.

d) Ordaindutako baimenak ematea, aplikatu beharreko araudian ezarritako denbora eta arazoiengatik.

Laugarrena.– Eskuordetza honek ez ditu eragotziko Zerbitzuen zuzendariak, organo eskuduna den aldetik, gaiari buruz ezartzen dituen jarraibide eta irizpideak, eta eskuordetzaz ematen diren ebazpenek zorrotz bete beharko dituzte irizpide horiek. Gainera, eskuordetza ematen duen organoak eskuordetutako eskumenak baliatzean ematen diren egintzen zerrenda aldizka bidaltzeko agindu ahal izango die eskuordetza eman zaien organoei.

Bosgarrena.– Agindu honetan aipatzen den eskumen-eskuordetzak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.2 artikuluan adierazitako mugak izango ditu. Eskuordetza honen bidez emandako ebazpen guztietan, berariaz aipatuko da horrela eman direla, eta organo eskuordetzaileak emandakotzat joko dira.

2021eko irailaren 30a, osteguna

Seigarrena.– Zerbitzuen zuzendariak edozein unetan erreboka dezake ebazpen honetan aipatzen den eskumen-eskuordetza. Errebokatzeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena.– Zerbitzuen zuzendariak bereganatu egin ditzake ebazpen honek aipatzen duen eskuordetzan jasotako edozein gairen ardura eta ebazpena, hartara eragotzi gabe eskuordetzak iraun ahal izatea, espresuki aldatzen edo errebokatzen ez den bitartean.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek 2021eko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 16a.

Zerbitzuen zuzendaria,
MIREN KARMELE ARIAS MARTINEZ.